

Goizalde Landabaso

# Bränskint

IRUDIGILEA  
Aritz Eiguren



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2011ko maiatza

© Txalapartak  
© Goizalde Landabasok testuarena  
© Aritz Eigurenek marrazkiarena

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
San Isidro, 35-1A  
78 Posta-kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 703 934  
Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

ISBN  
978-84-8136-615-0

LEGE GORDAILUA  
BI. 1.282-11



Herrialde bat adinako hiri handiak izango dira  
Etorkizuneko hiri erraldoiak  
Non gizaki-inurria zifra bat izango den  
mugitu eta sufritu eta dantzatzen duen zenbaki bat.

VICENTE HUIDOBRO

## ITXAROPEN GORRIA

ZERUAK EZIN DIO negarrari eutsi atzoz geroztik. Drama matxingarratza hirian.

Ez da itzurbiderik. Eguartea da eta guerdia dirudi. Etxeetako argiak erreskadan isiotu dira. Zuri-beltezko filma zatekeen eguneroko bizitza ez balitz.

Aterkiak. Txotak. Eskularruak. Tapaukak. Lantzean behin urdinak apurtzen du linealtasuna; baina, oro har, beltzaren eta grisaren artekoa da eguna.

Hirurogeita hamar urteko gizona azaldu den arte. Kapela beltza, gabardina beixa, denboraren mapa eskuetan eta oski grisak. Makulu bat eskumakoan.

Eta ezkerrekoan: arrosa ezin gorriagoa.

GAUEKO IZARREK DIGUTE BEGIRATZEN

BULAR ARTEKO BIDEZIDORRERA jausi den elur malutak  
hozkirria eman dio. Hotza. Autorik apenas. Bezero  
gutxi gaur.

Azkenaren haginkada makilatu beharko du.

Kitto laneguna.

Etxera bidean, errebuelta eman eta parkeko irtee-  
ran ikusi ditu lau mutilak.

Senak: buelta eman ezan!

Mutiletako baten aldarria ozenagoa izan da.

Puta!

Eskuetatik oratuz marasmatu dute. Jesukristo  
gurutziltzatua eme baten soinean.

Labanaz arropa urratu diote. Azalean, desaroa.  
Odola kandeloi bilakatua.

Ez, ez, ez eta ez; buruak oinari ostikoa agindu dio,  
baina honek ezin du arerioarekin.

Etsaiaren itsasgorak inbaditu du.  
Lehenengoaren bultzadek animoen erritmoa dute.  
Ahotsak. Arnasatsa. Identifikagaitza zaion usai-  
na. Bestearen baba-adurra ezpainetan. Esku elkorra,  
bularrean lizpaper laztanak. Mina. Arroila ariman.  
Bere gorputzetik kanpo da jada. Gorputza gorpu.  
Begirada metro batzuk aitzin dagoen zurezko jesar-  
lekuan iltzatu du.  
«Atzetik egingo dizut nik, putatxo!».  
Begiak ixterakoan, malko soil eta zital batek trai-  
zionatu du emakumea.

## TANGO BAT DA BIZITZA

Hamar eurokoa bota diote txapelera.  
Zenbat doinu balio du papelina batek?  
«Tango bat, mesedez».  
Piazzolaren doinua jotzen hasi da.  
«Qué guapo!», esan dio bidaide saskelak artistari.  
Turistak musikara batzen hasi dira.  
Arrangura hedatu da kalean gora.



Izutu dute ateko kolpeek.  
Brum! Brum! Brum!  
Bistaz soilik ezagutzen duen emakumea.  
Desesperatuki heldu dio aurpegi ezagunak ateko  
ertzari.  
Oina eragozle bihurtu da atearentzat.  
Auzokidea dela diotso.  
«Lehenengoko A-koa».  
Atea erabat zabalduz, sartzeko gonbita egin dio.  
Kafea sutaratu ostean, kotoia eta ur oxigenatua at-  
era ditu.  
Auzokidea aulkian eseri da.  
Ez da hitzik behar.  
Odol zantzuek kotoi bustia lohitu dute.  
Usain ona du...  
Zerk?  
Kafeak?  
Bai.  
... Eskerrik asko.  
Ez da ezer.



## ARTISTA IZAN NAHI DUT, AMA

HOTZAK LURRUNDU DITU geltokiko beirategiak. Laio-  
tzak irentsi du gizona eta, atzamarra pintzel, por-  
tuaren soslaia margozen ari da. Artelana ez zaio  
gustatu, eta ezabatu egin du.

Margozteari ekin dio. Zigarro bat. Ke-irudiez erdi-  
tzen den kafe-kikara. Etxe bat ere bai. Eta izei hos-  
totsua. Tranbiarik ez dator.

Zubiaren hezurreria marraztu du; baina tanta bat  
erortzean pitzatu zaio.

Tranbia. Ama-semetxoak jaitsi dira. Ufakak utzi-  
tako kako-makoei begira gelditu da mutikoa. Ondo-  
ren, begi bazterretik, eskuoihal eta kartoi lohi artean  
ostendutako gizona. Amak deiadar egin dio seme-  
txoari.

Mugi zaitez, berandu gabiltza eta ferryak alde  
egingo du.


Seme xarmangarriak askatu du amaren eskua eta geltokiko kristalera zuzendu da. Zigarroa, ke-irudiez erditzen den kafe-kikara, etxea, izei hostotsua eta zubiaren hezurreria ezabatzeko, solfeo mugimendu bi baino ez ditu behar izan.

Begirada malmuzkia bota dio trapu lohi artean ostendutako gizonari.


Amaren gonapera batu da gero.

MAPA MARRAZ LITEKE  
ZAPATU GAUETAKO ZIRRIKITUETAN

Noiz?  
Orain.  
Nora?  
Nahinora.



Zeurera?  
Hor bizi naiz.  
Bakarrik?  
Bakarrik.  
Bila ibiltzen zara?  
Aritzen natzaizu.  
Aurkitu nauzu.  
Gaur bai.  
Zorionekoa, beraz...  
Bai, antza.  
Eta noiz arte?  
Nahi duzun arte.  
Zeurera, beraz?  
Neurera.



## ADISKIDETASUN ULERTEZINAK

UMEEK MUNSTROTZAR BAT DUTE ADISKIDE. Soto bazterrean bizi da. Saunaren ertz batean. Txokolate beroa eta gazta ketuak jaten ditu.

Ez du izenik; izanik, ordea, bai.

Argitxo bat pizturik uzten diote sarreran, lorratza gal ez dezan.

Txikienak ez dio berba askorik egiten, baina pozten da agertzen denean.

Nagusiena, ostera, haserre dago.

Munstroak aspaldi ez dio ipuinik kontatzen. Alde egin duela pentsatzen du.

Etorriko da, gaur txokolate beroa daukagu.

Joan da. Betiko.

Zelan dakizu?

Logika da.

A, ba logika bada...

Sarrerako argia amatatu dute.







## ZENBATETAN JO BEHAR DU POSTARIAK ATEA?

«BAT GUTXIAGO».

Senarraren kolpeak, dagoeneko, bat gutxiago dira.

Eta gutxiago.

Goiko bizilagunarenganako errituala egin du.

Kox-kox.

Gaueko isiltasunean arrakala konponezina.

Eternitatea zain.

Mugimendu txikiak.

Pausoak.

Atea, zabalik.

Bizilaguna barrura sartu da.

Sukaldera zuzenean.

Auzokidea kafea prestatzen ari da.

Zigarro bat emango didazu?

Bai, noski.

Tabakoak hil dezakeela diote...

Pertsona batzuek ere bai.

Zurripada sakona eman dio zigarroari. Tabakoak,  
zank, hil baleza. Auzokideak ere zigarroa ahitu du.

Gera naiteke?

Jakina.